


Gure mundutxoa



Alemaniera-irakasleen nazio arteko 8. biltzarra Zuritx-Suitzan

Hizkuntz egoera Suitza alemanean

a) Suitzako lau hizkuntzak

Oinarri-oinarrizkoa du Suitzako identitate nazionalak bertako lau hizkuntzak (alemaniera, frantsesa, italiera eta romantxea) elkarrekin armonia onean bizi izan daitezkeelako ustea; baina gaurregun gero eta gehiago jartzen da hori zalantzan.

b) Alemaniera Suitzan

Alemaniar hizkuntza gataskan ari da beste hizkuntza ofizialekin eta baita beste lurraldeetako alemanierarekin ere, berezi egin nahi bait du haiengandik.

c) Suitzako alemanieraren dikotomia

Egia esan, alde handia dago *alemaniera kultoa* eta *dialektoaren* artean. Suitzako ahozko hizkuntza alemanak baditu bere desberdintasun gramatikal eta lexikalak, beste lurraldeetako alemanekiko komunikazioa eragozten dutenak.

d) «Dialektoa» hizkuntza nazional gisa

Alemaniko alemaniera *ofizialaren* aurka egoteak Suitzako alemanierari balio handiagoa ematera eramaten du eta kode berezitutako hizkuntza egitera, bere literatura propioa eta guzti.

e) Dialektoaren azpitaldeen arteko gataska

Suitzako dialektoa indartu nahiak kantoietako dialektoen arteko gataska biziagotu egiten du orohar, horietako batzu beren garrantzia galtzen ari bait dira.

f) Erreakzioa

Dialektoari balio emateak burrukara bultzatu ditu berriro ere alemaniera kultoaren zaleak, hizkuntzaren batasuna babestu nahi bait dute.

Eztabaidako ideia aipagarriak eta antzeko gaietako buruzko ponentziak

— Hizkuntzen arteko gataskaren bat denean, errazago izaten da gehiengoak zenbait alorretan gutxiengoari amore ematea. Bi talde berdinak direnean, bata bezala besteak burruka egingo du status quo alda ez dadin.

— Badira arrazoi politiko eta psikologikoak hizkuntza bakoitzaren statusa mugatzen dutenak. Bestalde, jendea hizkuntza bat ikastera eramango duen eritzi publikoa sortu behar da.

— Kanpotarrentzat mantendu egin behar da komunikatzeko bidea, eta hizkuntza estandarrean hitzegin behar zaie.

— Hizkuntza nagusiari buruzko inkestek ondorio okerrak izaten dituzte, hizkuntzaren erabilera funtzio eta alorretan banaturik bait dago. Zentsulariekin hitzegiterakoan ziuraski hizkuntza hobetsiena eta *publikoena* izango da garaile.

— Oso zail da hizkuntza noiz hilko den asmatzea, une batzutan *lo egoten* bait da, baina hil gabe.

Jürgen Wolff

Itzultzailea: Boni Urkizu

Irakasle berrien prestaketarako ikastaroa

Aurtengo ikastaroan zenbait Udal-Euskaltegitan eman den ikasle kopuruaren gorakadak antola erazi digu aipatzen dugun ikastaro hau. Ezinbestean, ikasle gehiago izatean, irakasle ugariago behar izan dira Euskaltegietan. Aurtengo egoera honek Euskaltegiak indartzen ari direla pentsarazteaz batera, lana ugaritzea ere ekarri du berekin. Eta, horrela, nolabaiteko desoreka sortu du irakaslegoaren baitan, zenbaitzu aurreko urteetako ikastaroetan arituak bait ziren, eta azkenaldi honetan lanean hasitakoak, aldiz, ia-ia esperientziarik gabekoak dira kasu gehienetan.

Irakasle berri hauen beste ezaugarrietako bat kontratatu bezain laster lanean hasi izana da. Beraz, irailaren hasieran antolatu zen ikastaroan parte hartu ezin zutenak dira. Horrexegatik erabaki genuen, hain zuzen ere, irakasle hauei ere prestaketarako ikastaroa eskaintzea. Baina dagoeneko lanean dihardutenez, ezinezkoa zen iraileko baldintza berdinetan ikastaroa eratzea, eta, honela, astebeteko ikastaroa antolatu genuen, goizetan hiru orduz, eta bi leku ezberdinetan. Horren arrazoia irakasleen presentzia erraztea izan da. Horrela, bada, lehen ikastaroa Donostian egin da azaroaren 3tik 7ra HABEk Donostian duen Euskaltegiaren egoitzan, eta bigarrena, aldiz, azaroaren 10etik 14era Bergarako Udal-Euskaltegian. Baldintzak nahi bezain egoiak izan ez badira ere, hogeita hamar irakaslek hartu dute parte bi asteotan zehar.

Ikastaroaren mamiari gagozkiolarik, lau atal aztertu dira:

1. HABEren programazioa eta materialaren aurkezpena eta honen erabilera zuzenerako erizpideak.
2. Klasearen etapak. Definizioak eta antolaketa egokirako erizpideak. Ikastaroaren punturik garrantzitsuenetako bat izan da hau, eguneroko lanerako ezinbesteko bait da klasean egin behar diren urratsak ongi definituak eta zehaztuak izatea.
3. Trebetasunak. Trebetasunen definizioa eta elkarrekiko loturak. Garapena klasearen etapetan.
4. Ebaluazioa. Ebaluazioa ikasprozesuan. Ebaluazioa eta programazioa, ebaluazioa klasearen etapetan. Ikuspegi orokorrak bat, ebaluazio-frogak ere aztertu dira. Frogen baldintzak, edukiak eta zuzen aplikatzeko erizpideak.

Labur bada ere, hona hemen ikastaroaren nondik-norakoaren berri. Guk uste bezalaxe, parte hartze ona izan da, eta mugak hortxe bazeuden ere, gure helburua bete delakoan gaude, hots, irakasle berri hauek euren lanari buruz zentratuago eta jantziago itzuli direlakoan.

Xabier Elortza

«Galbahe» testak

Hezkuntz Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Glotodidaktika Taldeak bi test argitaratu ditu *euskara maila* eskoletan neurtzeko asmoz.

Hirugarren bat ere irtetear dago, baina azken hau *gaztelania maila* neurtzeko izango da. Test hauek E.I.F.E. ikerlana egiteko ere erabili ziren 1984 urtean.

Proba hauen helburua eskola giroko euskararen maila neurtzearena da. Horretarako ohizko trebetasunetan oinarritzen dira: ulermena, irakurmena, idazmena eta mintzamina.

Test hauek estandarizatuak eta normatiboak dira, hau da, erreferentziazko talde batekiko konparabidea eskaintzen dute. *Galbahe E-2*ren erreferentzi taldea OHOk 5. mailako D ereduko haurrak dira, *Galbahe E-1*ena, 2. mailako B eta D ereduak haurrak.

Azpiprobak

Esan dugunez, lau trebetasunetan oinarritzen dira. *Galbahe-E2k* (10-11 urtekoentzat) 6 proba ditu: *Ahozkoaren ulermena II* eta *III* (bata bestea baino zailagoa), *Irakurmena I* eta *II*,

Idazmena eta Mintzamina II. Mintzamina bakarka aplikatzen da eta besteak aplikazio kolektibokoak dira.

Mintzamina da, noski, zuzentzeko probarik zailena. Haurren ahozko produkzioa *baremo* baten arabera puntuatzen da, horretarako adibideak eskaintzen direlarik. Idazmen-proba ere antzeko baremo batez zuzentzen da. Besteetan zuzenketa erabat mekanikoa da.

Galbahe-Elek (7-8 urtekoentzat) 5 azpiroba ditu: *Ahozkoaren ulermena I, II eta III, Mintzamina I eta II*. Adin honetako hurrei ez zaie *ulermena* eta *mintzamina* besterik eskatu.

Test hauek kaleratzerakoan, eskolaren euskalduntze lanak exigitzen zituen ebaluaketatresna minimo batzu eskaini ditugu bederen. Irakasle, ikuskari zein koordinatzaileei beren lanaren frutua ebaluatzeko bide bat eman nahi izan zaie.

Galbahe-testek ematen duten informazioa kuantitatiboa da gehienbat. Hau da, haurren mailaketa bat eskaintzen du, bakoitzari *zenbaki* bat emanez. Hala ere, posible da perfil baten bidez bakoitzaren *ezaugarria* ere kontuan hartzea.

Ez dira hemen testen argitalpenak bukatuko, lehenik gaztelaniaren maila neurtzeko *Galbahe C1 eta C2* argitaratuko dira, bada A ereduko 8. mailarako beste bat inprentan eta agian Eskolaurrerako bat prestakuntzan. Honek ez dute Galbaheen eduki eta metodologia berbera. Beti ebaluazioari ere bide berriak ireki behar zaizkielakoan gaude, nahiz eta askotan zaila izan.

I. Olaziregi / J. Sierra

«Clase de euskera» telesaila

ZUTABEren geroeneko alean *Hizkuntz ikasbide multimediak* izan genituen aztergai, batez ere HABE et E.T.B.ren arteko «*Bai horixe*» sortu berria zela eta. Gaurkoan beste berri bat dugu, haren antzekoa. T.V. Espainiarrak «*Clase de euskera*» programa sortu du eta ematen ari da. Xabier Gereño, euskararen aldeko langile nekaezina, izan da horren antolatzailea eta hementxe dituzu emanaldi horien xehetasunak.

* * *

- *Helburua*: ikuslego zabal batek euskarari buruzko oinarritzko ezagutza lortzea. Bost minututako emanaldien bitartez ezin daiteke gehiago lortu. Zerbait ikasi eta jendea animatzen bada, hor dituzte gehiago sakontzeko euskara ikasteko metodoak eta euskaltegiak.

- *Ikaslegoa*: edozein teleikusle. Horregatik ez da gramatikalki gehiegi sakontzen.

- *Irakasteko sistema*: nire liburuetan (metodoetan) erabiltzen dudana, hau da, azalpenak ikasleak ezagutzen duen hizkuntzan. Horrela eginez, uste dut denbora asko irabazten dela. Irudien bitartez egingo bagenu, jendeak esfortzu adizional bat egin beharko luke haien esangura asmatzen. Beraz, biderik zuzenena eta errazena hartu dut, eta horrez gain, denbora ahal den osoen euskara ikasten aprobetxatzeko, eta ez irudiak asmatzen.

- *Gidoiak*: «*Método fácil para aprender euskara básico*» nire metodoetatik eratu ditut, telebisioa den medio berezi horretara egokituz.

- *Ordutegia*: astean bost aldiz, astelehenetik ostiralera, bost minutuz, 13,30 hasita.

Xabier Gereño

Alfabetatzerako langaiak. Bizkaieratik baturantz

Argitaratu berri du HABEk *Alfabetatzerako Langaiak. Bizkaieratik Baturantz* liburua.

Euskal Herri osoan legez, Bizkaian ere hainbat saio eta esperientzia egin izan da alfabetatzearen arloan. Ahalegin guzti horiek bideratzeko eta laguntzeko asmoz, besteak beste, HABEren Alfabetatze Sailak *Helduen alfabetatzerako programazioa* deritzan liburua argitaratu zuen 1983an, eta 1984ean berrargitaratu. Bertan, alfabetatzearen ikuspegi orokorra eta zenbait material erabilgarri eskaintzen dira.

Aipatu liburua abiapuntutzat harturik, material zehatzagoa egin asmoz eta Alfabetatugaien publiko konkretu bati begira, HABEren Alfabetatze Sailak *Helduak Alfabetatzen Lehenengo Maila* izenburua daraman material idatzia argitaratu zuen 1984ean. Langai horiek EGA mailaraino iristeko beharrik ez duen euskaldunzaharren alfabetatzerako prestatu ziren.

Oraingo material idatziak, argitaratu berria den liburuak hain zuzen, helburu bera du, hau da, EGAK eskatzen duen mailaraino iristeke, irakurmen eta idazmenaren arloan batez ere, eguneroko premia arruntei euskaraz erantzuteko gaitasuna lortzea. Material hau bizkaieraz mintzatzen diren euskaldunzaharrentzat prestatu da. Bazegoen honelako materialaren beharrik; izan ere, gaurdainoko programa eta material gehienek ez dute ia kontutan hartu alfabetatze gintzan bizkaieraz mintzatzen direnen berezitasuna, hau da, bizkaieratik baturako zubia, gipuzkeratik, adibidez, dagoena baino luzexeagoa dela.

Hasiera aipatu den *Helduen alfabetatzerako programazioa* liburuan, argi eta garbi planteatzen da arazo edo berezitasun hori.

«Edozein ikaskuntz prozesutan egiten den edo egin behar den bidea haxe da: ikasleak dakiena abiapuntutzat harturik eta dituen gaitasuna eta esperientzia erabiliz, ez dakienara jo, aurrez aukeratutako helburuen bila... Printzipio hau euskarazko alfabetatze prozesura aplikatzen badugu, zea ikus dezakegu: Alfabetatugaia euskaraz mintzatzen da, baina gehienetan euskalkiak ditu hizkerabide. Eta euskalkien barnean, herriko hizkera bereziak. Hau da alfabetatugaia dakiena eta hemendik abiatu behar du ikas-prozesuak. Jomuga ere nahiko argia da: euskaraz eta egungo oinarritzko kulturaren mailan, hitzegiten, ulertzen, irakurtzen eta idazten jakitea. Helburu hau lortzeko eta, batez ere, alfabetatzeak bere-berezko jomuga dituen irakurmena eta idazmena lantzeko euskara batua erabiltzen dugu. Euskararen eredu hau dugu prozesuaren helmuga, egun batean euskaldun alfabetatu guztien komunikabide emankorra gerta dadin».

Alfabetatze programa batek, beraz, euskalkien arazoa planteatu egin behar du eta bakoitzaren berezitasunei erantzuten saiatu. Horretarako bideak ezberdinak izan daitezke. Bizkaieraren kasuan, HABEk lehenengo pausoa, apala bada ere, eman du. Pedagogiak eta didaktikak argi erakusten dute bizkaieraz hitzegiten dutenei beren hizkerara egokitu behar zaizkiela alfabetatzeko lehenengo saiok. Eta arrazoi pedagogiko horietan oinarrituz burutu du HABEk hemen aurkezten den materiala.

*Alfabetatzerako Langaia*k. *Bizkaieratik Baturantz* liburua 100-125 ordutako ikastaroak burutu ahal izateko ikasleentzako materiala da. Zenbait alfabetatugaientzat nahikoa izango da ikastaro hori; beste batzurentzat, aldiz, aurrerago jotzeko lehenengo ekinaldia izan daiteke.

Langaioi prestatzerakoan astea hartu da ikasunitatetzat, egunean bi orduz arituz, hamar orduko astea. Programak hamar aste edo ikasgai ditu.

Langaian barnean egin den banaketa landu beharreko trebetasunen arabera da, eta hiru atal nagusi ditu: *Idazmena*, *Irakurmena* eta *Entzumena*. Beste atal gehigarri bat ere badago, *Osagarriak* deritzaguna, hain zuzen.

Lehenengo atalaren helburua idazmenaren urratsak ematea da. Eguneroko bizitzak eskatzen dituen premiazko gauzak euskaraz idazten ikastea, hain zuzen. Bestela esan, normalean erdaraz idazten den apurra euskaraz egiteko beldurra kentzea eta gai egitea. Atal honek bi zati ditu: *Ebakera* eta *Idatzera*, eta *Idatzarriketak*.

Bigarren atalaren helburua etxeko eta lagunarteko hizkera aberastea da eta, era berean, irakurketari zein idazketari dagozkien helburuak lortzeko beharrezko den lexikoaz jabetu.

Hirugarren atalaren helburua norberaren ingurutik urrundu ahala edo gai konkretu bat azalduz entzundakoa ulertzeko sortzen diren zailtasunak gainditzea da.

Osagarriak deritzagun atalaren helburua, ikasketari arintasuna ematearekin batera, geure lurraldeari buruzko ezagupide batzu eskaintzea da, bide batez jolas desberdinen bidez hiztegia landu eta aberastu nahi delarik.

Amaitzeko, langaiok Gernika, Mungia eta Zornotzako Euskaltegietan eta inguruko auzo eta herrisketan 1984/85 eta 1985/86 ikasturteetan emandako saioetan erabili den materialez hornituak daude. Langaioan dagoen zenbait material Alfabetatze Saileko lankideek *Helduak Alfabetatzen Lehenengo Maila* liburrarako sortua da eta alfabetatze saioetan erabili ondorengo bilketa eta egokitzearen emaitza da.

Itzulpen Saila — 1986: 9 - 12. zenbakiak

Ingalaterrako Cambridge University Press-ekin izandako harremanen ondorio, argitaletxe horrek ingeles-irakasleei zuzendutako hiru liburu euskaratu dira aurtengo Itzulpen Sailerako. Laugarrena, berriz, frantsez irakasleentzat egina dago. Bestalde, UZEI izan da ingelesez zeuden hiru liburuen itultzaile eta Boni Urkizu frantsesez zegoenarena.

William Littlewood irakasle ospetsuaren eskutik datozkigu lehen bi liburuak: *Hizkuntz irakaskuntz komunikatiboa* eta *Hizkuntz arrotzen eta bigarren hizkuntzaren ikaskuntza*. Littlewood irakasle alemanieran eta frantsesean espezialista da eta hizkuntza hauek irakatsi ditu, eta baita ingelesa ere hizkuntza arrotz gisa. Orain hamar bat urtez geroztik irakasle-trebakuntzan ere iharduten du.

- *Hizkuntz irakaskuntza komunikatiboa*

Sintesiaren eta doitasunaren erudia da liburu hau, ondo egitaratua eta iradokizunez bete. Honela dio egileak berak liburuaren helburuari buruz hitzaurrean: «Liburu honen helburua praktikoa da: irakasleei beren tekniken erreperitorioa zabaltzen laguntzea, hizkuntza arrotz batean trebekiago komunikatzeko, ikasleak gaitu ahal izan ditzaten». Eta geroxeago: «Nire asmoa iharduerak iradokitzea izan da, hauen bidez irakasleak ikasleei lagundu ahal diezaieten egitura horien menarapena baino harago joaten, egoera errealetan esanahiak komunikatzeko erabili ahal izan ditzaten punturaino».

- *Hizkuntza arrotzen eta bigarren hizkuntzaren ikaskuntza*

Hizkuntza arrotzen eta bigarren hizkuntzaren ikaskuntzari buruz zenbait ikerketa egin berri dira: ikerketa horietatik sortu diren ideia eta aurkikunde batzuri buruzko sarrera da liburu hau. Liburua idazterakoan, bereziki irakaskuntzaren lagungarri gerta daitezkeen alderdiak lortzen saiatu da egilea.

Liburuan zehar honako puntuak ikutzen dira: ohizkoak ziren hizkuntz teoriak, ikasleen erroreak eta hizkuntz estrategiak, hizkuntzaz jabetzerakoan ikasleek ordena jakin bati jarraitzeko joera ote duten, ikasle batzu beste batzu baino arrakastatsuago zergatik diren eta ikasleak beren hizkuntza berriaz komunikatzeko nola baliatzen diren.

- *Eztabaida erabilgarriak*

Penny Ur, liburu honen egilea, oso ezaguna da, mintzapraktikaren alorrean izan duen ekarpen baliotsuagatik.

Liburuan, hizkuntz irakaskuntzaren aspektu zehatz bat tratatzen da: jartotasunaren praktika. Bertan, hizkuntza kreatiboki, era pertsonal batean erabiliz, ikasleak ikasgelan hitzegitera bultzatu ahal izateko zenbait bide iradokitzen dira.

Bi atal ditu liburuak. Lehenean, eztabaida on baterako ezinbesteko diren elementu batzu aztertzen dira: mintzagaia, talde-lana, rol-jokoa. Bigarren atala —ia liburu osoa— adibide praktikoz osatua dago.

- *Joko eta ekintza komunikatiboak hizkuntz klasean*

Liburu honetan 51 joko eta ekintza agertzen dira fitxa-moduan. Joko edo ekintza bakoitzean helburua, materiala, prestaera, garapena eta aldaerak deskribatzen dira zehatz-mehatz. Egileak, François Weiss-ek, 7 ataletan banatu ditu ariketa hauek: 1) zenbakiak, 2) letrak eta hitzak, 3) galderak, 4) komunikazio-egoerak, 5) mimoa, esketxak eta rol-jokoak, 6) sormena eta 7) lasaitzeko jokoak.

Imanol Irizar

Euskalduntzearen B mailarako zazpi langai berri kalean

Iazkoa euskalduntzearen A mailarako langaien urtea bezala, B mailarakoen urtea izan dugu aurtengoa. Hiru irakasleen liburu, bi ikaslearenak, rol-jokoen eta bildumaren fitxeroa eta sei

kasete eman dira 1986an argitara euskalduntzearen 5. eta 6. urratsetarako langaien osagarri. Ordulaurdeneko hamar elkarriketa ere grabatu dira bideoz, euskalduntzearen goi mailetan eta alfabetatzean erabil daitezkeenak. Hona hemen, banan-banan, guztien berri.

Irakaslearen liburuak

Hiru liburu argitara eman ditu HABEk 5. eta 6. urratsetako irakasleentzat: bat mintzamina lantzeko, beste bat entzumen lantzeko eta hirugarrena irakurmena eta idazmena lantzeko.

Liburu hauean aurkituko ditu irakasleak nola ikaslearen liburuen edukia eta erabilera hala Rol-joko, Bilduma eta Kaseteena ere.

Liburuak, jakina, programazio ofizialari jarraiki eratu dira.

Ikaslearen liburuak

Bi liburu argitara eman ditu HABEk 5. eta 6. urratsetako ikasleentzat: lehenengoa mintzamina eta entzumen lantzeko, eta bigarrena, berriz, irakurmena eta idazmena lantzeko.

Liburuak, jakina, programazio ofizialari jarraiki moldatu dira, trebetasunez trebetasun moldatu ere. Bestalde, erantsi beharra dago nork bere gisa baino gehiago direla euskaltegietan erabiltzeko, irakaslearen gidaritzapean eta lan-taldean nahiz bakarka.

Rol-jokoak eta Bilduma

Euskalduntzearen 1986an A mailarakoei jarraiki, argitara dira B mailarako Rol-jokoak eta Bilduma, biak batera argitara ere, oraingoan fitxero banatan ez baina bakarrean.

Batipat mintzamina lantzeko prestatutako hogeitabat joko dira guztira, hamairu rol-joko eta gainerako zortziak bildumari dagozkionak.

Irakaslearentzat argibideak dituen liburuska bat ere argitara eman da jokoei batera.

Kaseteak

Lehenengo lau urratsetako zortzi kaseteen ildotik datoz euskalduntzearen bosgarren eta seigarren urratsetarako sei kasete berri hauek ere, zenbait hizketa eta kontakizunez osatuak.

Kasete hauen edukia, jakina, aurreko zortziak ez bezalakoa da, 5. eta 6. urratsetako ikasleentzumenaren arabera: grabazioak luzeagoak dira eta benetako hizketatik gertuago daude.

Irakasleak eta ikasleak nor bere entzumen lantzeko liburuan aurkituko ditu kasete hauen eduki, erabilera eta ariketen berri.

Pello Esnal

«Aurten bai» kanpaina Bizkaian

Iazko esperientziari jarraiki, aurtengo 86/87 ikasturte honetan ere HABEren Bizkaiko ikuskatzailetak zenbait Udal Euskaltegiekin batera «Aurten Bai» lemapeko alfabetatze kanpainari ekin dio. Eta iaz Gernikalde eta Mungialdean egin zena Durangaldera hedatu da aurtengoan.

Hartan horretan, Bizkaiko Foru Aldundiaren languntza geureganatzeko aukera agertu zitzaigularik, aipaturiko hiru erakundeon artean atera da aurrera kanpaina.

Helburu orokorra alfabetatugabeengan alfabetatzeko premia sortaraztea izanik, jende hori geureganatzeko ahalik eta erreztasunik gehien eskaintzen saiatu gara. Bide horretan, berez

euskaltegietara etorriko ez litzatekeen jendearengana gu geu hurbildu eta ikastaro labur intentsiboak eta euren auzo eta herrixketan eskaini ditugu. Ikastaroak urritik abenduartekoak dira, egunero ordu bikoak. Guztira 100-125 ordutakoak, beraz.

Jendea erakartzeko ere ekintza ugari burutu da, halanola, alkateen eskutitzak, triptikoak, kartelak, animazio taldeak, euskal filmeak, prentsaurrekoak eta abar. Baina, egia esan, ondoriorik onena ahoz aho egindako propagandarena izan da, eta horretan itzelezko laguntza izan dira herrietan izan ditugun irakaslegaiak.

Iraillean zehar jo ta ke aritu ondoren, nahiko emaitza onak lortu ditugulakoan gaude, zeren 22 herrixka edo auzotan lortu bait ditugu taldeak, guztira 415 ikasle. Aipatzekoa da jende honen artetik ia gehiengoak ez zuela alfabetatzen hasteko inora mugitzeko asmorik.

Ikastaroko irakaslegoa tokian tokikoa dugu ia guztia eta eskualde bakoitzean koordinatzaile bat arduratzen da taldeen jarraipena egiten eta HABEko Ikuskatzaitzarekiko zubi izaten.

Programaren aldetik, berriki argitara eman den «Alfabetatzerako langaiak. Bizkaieratik baturantz» izeneko darabilgu kanpainan, izan ere, horretarakoxe espreski prestatu bait genuen.

Une honetan, ikastaroa martxan, Gabonak arte itxaron beharko dugu zer moduzko emaitzak datozkigun ikusteko.

Josu Goikoetxea